






# LAPURRAK!



## USURBILGO UDALA

### HERRIKO ETXE IZATETIK, CASA CUARTEL IZATERA PASA DA, EAren eskutik

#### GERTAERAK

#### ONDORIOAK

#### 2003-06-14

- Udalaren osaketa, plenoa Foru Aldundian: EA, PNV, PSOE eta PP
- Luis Mari Ormaetxea, EAkoa, beraien 5 bozkekin, alkate izendatua

- UHL, Usurbilgo lehen indarra, 1185 boto eta 6 hautetsirekin baztertua.

**FAXISMORI STOP!**

**DEMOKRAZIA EUSKAL HERRIARENTZAT  
eta USURBILENTZAT!**

**LAPURRETA burutzen DA**

#### 2003-06-29

- Santixabeletako Ormaetxearen agurretik eta Udalaren iragarkitik "Euskal presoak Euskal Herrira" ikurra desagertu egiten da.

- Hauxe izan da bere lehen lana, usurbildarron gehiengoak aspalditik bere egin duen aldarrikapenari muzin egitea.

#### 2003-07-15

- Eguerdiko 13:00ean plenoa. Udaleko atarian:
- \* 18 erluzain (hezurretaraino armatuta, eta bideo kamararekin herritarrak grabalzen)
- \* 12 bizkarzain
- \* pleno aretoko sarreran 3 udaltzain, herritarrak identifikalzen

- "Demokraten" lehen indar erakustaldia. Erreparatu bestela udaletxeko sarrerako argazkira. Hauek al dira pleno irekiak?
- \* Hau al da zuen bakea?
- \* Hau al da Ibarretxe Plana?

**ALDE HEMENDIK!**

- Plenoan aholku batzarrak ez ziren aipatu ere egin.
- Giza Eskubideen batzordea PP, PSOE, PNV eta EAK bakarrik osatuko dute.

- Herriaren partehartzeari bizkarra eman diote.
- UDALETXE ITXIA. Hau al da Luis Mari Ormaetxearen irekitasuna?

- Pleno erdia baino gehiago espainolez. PNV (Ibarra), PSOE eta PPko zinegotzien interbentzio guztiak espainolez.

- Usurbilen 3/4ak euskaldunak gara. Nola errespetatuko dituzte euskaldunon eskubideak? Espainolez?

- PNV eta EA ez dira konpontzen. PNV aurka edo abstenitu egin zen bozketetan

- Galdetu berariei arrazoia. Agian putre gehiegi eta bazka gutxi?

## HAUEK AL DIRA "ABERTZALE DEMOKRATAK"?



# Txirrikitutik

**A**buztuaren 3an San Esteban eguna ospatuko dugu eta urtero bezala Urdaigako ermitaren inguruan giro berezi batez gozatzeko aukera izango dugu bertara hurbiltzen garen guztiok. Trikitixa eta pandero doinuak ez dira segurenik faltako.

Paisajes Españoles-ek 1959. urtean hegazkinez ateratako argazki honi erreparatzen badiogu orduko paisajea nolako zen jakiteko aukera izango dugu. Ezkerretik hasita hortxe dugu Andatza mendira doan bidea. Jarraian Oa Bekoa, Oa Goikoa eta Ostatu baserriak ikus ditzakegu eta ondoren, Urdaigako ermita dotorea. Erdialdean Urdaigako urtegia ageri da, oraindik estali gabe. Honen atzean, maldan behera, Gilisagasti baserria dago eta argazkiaren eskubialdean berriz, Urtinea baserria.

Denok dakigu, gaur egun leku honek beste itxura bat duela. Aldaketa nabarmenenak Leizekaldeko parkea, inguruko aparkaleku eta bideak eta zenbait etxe berriren agerpena izan dira.



Egilea Paisajes Españoles, 1959. urtea,  
Udal fototeka

San Esteban

Zalao Arnaiz Ibareguren.  
e-posta: [fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net](mailto:fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net)



**OHARRA:** Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta Noaua!ko Txirrikituko atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9:00etatik 14:00etara). Bestela, 943371951 telefonoan edo [fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net](mailto:fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net) e-postan aurkituko gaituzu. Garai bateko argazkien bidez gure herria hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Anima zaitez!

## N u !

**Argitaratzailea :** Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: [noaua.k.e@euskalnet.net](mailto:noaua.k.e@euskalnet.net)

Web orria: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

**Kazetarien koordinatzailea :** Imanol Ubeda

**Kazetariak:** Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea:** Jon Rueda

**Zuzentzailea:** Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak:** Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

**Informatika:** Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa:** Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**  
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

## Aurkibidea

ZUTABEAN, AINHOA AZPIROZ \_\_\_\_\_ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. URR.

KONTZEJU TXIKIA \_\_\_\_\_ 10. URR.

Uztailaren 15ean udalbatza berriaren lehen plenoa egin zen Udaletxean



LANBIDE IKASTETXEAREN ESKAINTZA \_\_\_\_\_ 12. URR.

PEDRO IBARRAREKIN SOLASEAN \_\_\_\_\_ 14. URR.

AZKEN TXANPAN SARTU DA TOURRA \_\_\_\_\_ 16. URR.

OPORRETARAKO NOAUA! TXIKI BEREZIA \_\_\_\_\_ 17. URR.

DENBORAPASAK, UDAN EZ ASPERTZEKO \_\_\_\_\_ 18. URR.

EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN \_\_\_\_\_ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Noaua! aldizkaria guztiz sustraiturik dago herrian



Ika-mika !

## “Nerea puta lesbiana deja de drogarte”

**M**akina bat zer pentsatua eman didaten idatziak ikusiak ditut Euskal Herriko paretetan, baina inoiz ez horrelakorik.

Udarregi ikastolako frontoi bateko horman azaldu da esaldia; nire lantokian, nire herrian, eta oso oker ez naiz ibiliko bertako ikasle edo ikasle ohi batek idatzi duela esaten badut.

Lastima. Pertsonak hezitzea dugu ikastolan helburu nagusia eta gure “idazle” anonimo honek (kasu onenean, “hauekin” txarrenean) ez dugu asmatu, ez guk, ez bere ingurukoek; familiak, lagunak... Eta zergatik ez dugun asmatu? Ba...

Bat: Frontoiak pintatzen ari diren langileen lana izorratu duelako.

Bi: Gazteleraz adierazi delako.

Hiru. Putak eta lesbianak isekarako

aitzakia dituelako (ze lastima! Ikastolak eskaintzen dizkion sexualitate tailerretatik etekinik atera ez duelako).

Lau: Drogatzea edo ez norbanakoaren aukera dela ulertzen ez duelako (lastima drogamenpekotasun tailerretan ere ez du ezer ikasi).

Esaldia ikusita, pertsona honekin asmatu ez izanaren ustezko arrazoiak ordea ez ote diren hemen bukatzen susmatzen dut, zerrenda luzeagoa izango denaren beldur bainaiz.

Gure ikasleen heziketa pertsonalaren zatitxo bat betetzen dugu irakasleok, adi beraz guraso, aiton-amon, osaba-izeba, lehengusu, adiskide edo zarena zarelakoa, zeren nik behintzat eta nik bezala gehienok, horrelako idatziak egiten duen pertsonik ez baitugu aldamenen nahi.

Zorionez, eta eskerrak, gure ikasto-

lan, gure herri jator, aurrerakoi eta abertzale honen ikastolan, ikasle gehienek, gutxi batzuk kenduta, putak, lesbianak, gayak, errumaniarrak, espainolak, venezolarrak, ijitoak, nanoak, kale garbitzaileak errespetuz tratatzen dituztela.

Hori bai, esaldi honen modukoak idazteko gai diren gutxi hoiekin (lehen esan bezala, bakarra kasu onenean) badugu zer egina, irakasle, guraso, osaba-izeba, aiton-amonak, lehengusu, adiskide eta guztiok.

Aipamenik izan ez duen irakaslerik ez da izan frontoian. Ez da azaltzen den lehen idatzia eta ez da azkena izango, izan ere, irakasle izateak horixe baitu, opor ederrak eta burla eta isekarako “blanko” perfektua.

Nerea Zinkunegi

Ika-mika !

## Elkartasuna, etorkizuna: Bolivia

**I**ritsi zaigu berriro ere uda eta motxila hartu eta kanpora joateko prest gaude jada. Aurtengoa, ordea, ezberdina izango delakoaren susmoan gaude. Pasa den urtean talde txo bat Bolivian zehar ibili ondoren, errepikatzea pentsatu du bakarren batek, baina helburu bikoitzarekin. Alde batetik, bertan dauden mendi zoragarrien gailurrak menderatuko asmoa du, eta bestaldetik, bertako Zipi

Zipi komunitatean proiektu bat bideratzeko asmoz.

Komunitate hau aitzinako Zipiko tributik sortua da. Altiplanoan dago kokatua, Morocoloko bidean, Achacachi alboan. Beste hainbat eta hainbat bezalaxe, bultzadaxo baten beharrea daude hauek ere, eta gure nahia, komunitate honen garapenean esku bat botatzea da.

Amaitzeko eta proiektu honen lehen pausoa emateko, bidaia honetan lehen

aportazioa egin nahi da. Horretarako, laguntza eman nahi duenak aukera izango du honako kontu zenbaki honetan:

KUTXA 2101 0069 19 0124221011.

Lehen aportazio honek erakutsiko die, itsasoz bestalde badela jenderik eurei laguntzeko asmotan.

Besterik gabe, mila esker aldez aurretik eta bueltakoan ikusiko dugu elkar.

Boliviaren Aldeko Lagunak



**LK** **T**  
**UT ZE** **ITZU**  
**ETXEK** **IKTU K**  
**K NAGEL TU K**

h k k l , 4  
T H 433 5742

**GL** **G**  
**garraioak**  
ZABOR BILKÆT  
TELF: 943 37 01 46



**EUKENE  
KAMINO**

**Txokoalde**

## Ai ene, gatza isuri zait...!

Siniskeriak dioenez, gatza, aintzainatik, Szorte onaren ekarle eta malefizio edo sorginkeriaren babesle kontsideratu izan da:

- Etxe batean gatza dagoen bitartean, dirua egongo omen da.

- Gaixo baten ohearen azpian plater bat gatzarekin jartzen badugu, gaixotasunaren aurka babestu eta gaitza xurgatzen omen du.

- Nahi ez diren edo gustoko ez diren bisitak itzurtzeko, gatza surtara bota behar omen da.

- Gustoko ez duzun norbait zure etxean bisitan egon bada, joaten denean, atarian edo bera egon den lekuan gatza bota eta gero hau jaso eta erre egin behar omen da.

- Desplazamendu bat egin behar baduzu, eraman ezazu gatza poltsikoan eta bidai on bat izango omen duzu.

- Zorte txarra ekartzen omen du isuri den gatza zapaltzeak.

- Auzoei gatza ematea ez omen du batere zorte ona ekartzen, ezta gatzontzi bat hautsitzeak ere. Bi gatzontzi elkarren ondoan eta pertsona baten aurrean jartzeak ere ez omen da zorte onaren seinale.

- Malefizioak itzurtzeko gatza erre edo beste-  
la ur gazitan bainatu behar omen duzu, bereziki eskuak eta oinak.

Beraz, zuen artean superstiziorik balego, badaki zer egin!



## Hizkuntzaren altxorra babesten



**IÑAKI  
AGIRRESAROBE**

**Kaleberri**

Euskaldunok makina bider geure hizkuntzaren egoeraz mintzatu ohi gara. Sarritan euskarari buruz, baina erdaraz. Dena den, egoerari buruz hitz egiteak egoera normalizatuan ez dagoen seinale da eta, tamalez, luza-roan jarraitzeko baldintza asko ditu. Dena ez da zorigaitza izango, izan ere, oraingo honetan duela zazpi urte Hitza Jasoz taldeak herriko jende adinduei hasiriko elkarrizketek euren jarraipena izango baitute. Honekin Usurbilgo hizkera gordetzea eta era berean ondasuna aberastea helburua zuen ekimena abian jarri da berriro.

20ren bat elkarrizketa burutu ostean grabaketa horiek kutxa zaharrearantz gelditu ziren inongo erabilerarik eman gabe. Irtenbiderik gabeko egoera honi ateak zabaldu zaizkio. Bekadun bat sei hilabetez transkribaketa fonetiko egiten hasi baita. Ildo honi jarraituz, liburu bat argitara-



tzeko helburua ere badago. Zutabeak herriko kontu zaharrak eta euskara izango direlarik.

Jende askok herrian gertaturiko pasarteez, ohiturez eta garai bateko bizimoduaz ezer gutxi jakingo dugunez, ekimen honek kultura aberas-  
teko balio beza.



## Abuztuaren 16an, San Roke

**K**aixo irakurle! Hemen natorkizue beste behin ere, berri emaile lanetan. Dagoeneko batzuk oporretan eta beste asko oporrak laister izango dituen ilusioarekin. Nabaritzen da jendearen joan etorria, errepidean ibilgailu ugari, auzoan eta herri osoan, oro har pertsona gutxiago, denek ahalik eta ondoen pasa nahian.

Udara aspaldi hasi genuen auzoko festekin eta bai ederki pasa ere. Baina udara erdi-erdian (gehienek jakingo duzue) hemen geratzen garenontzat, abuztuaren 16an San Roke ospatzen dugu Kalezarren. Nahiz eta San Joanak adina ez ospatu, aurten ere izango dugu nori errezatu, non eztarria busti, non jolastu, non bazkaldu, non kantatu, non dantzatu... Opor aurreko azken alea denez, ahaztu gabe denak zaudete guregana etortzeko gonbidatuak.

Bestalde, auzotar baten eskakizun batekin natorkizue (hemen denek duzue leihatila irekia). Kalezarrera joateko bideetako bat



Ugarteko aldapara igotzen da, eta ez da nolana hiko aldapa gure lagun honentzat.

Egunero igo eta jaitsi behar horretan, nekaturik, zera esan dit: "hartuko nuke gustura eserleku bat haur eskola parean, atsedeen pixka bat hartu, ume txikiak ikusi... entzun dezala eskerra hau entzun beharrekoak".

Ondo igaro oporrak.

Kalezar



JOSEBA  
PELLEJERO

## Merezitako atsedeen bila

**J**endea atera da auzotik ohiko oporraldira, izan ere, urte osoa zereginean pasa ondoren, zaletasuna gainezka izan ohi da zerbait berezia edo atsedena hartzeko denboraldi txiki batean bada ere.

Haurrak ere, hor dabilta gozo eta alai, bateko kanpamendu eta kolonietara joan, besteko hondartzara edo mendietara eta abar...

Ikasketak ahaztu ondoren, denboraldi batean, eta festa giroan murgilduta, aprobetxatu egin behar. Ahalik eta ondoen, zeren epe motza izaten baita oporraldia.

Hala ere, festarako aukera asko izan da azken egunetan, herriko festak pasa eta berehala San Ferminak hasi baitziren Iruñea aldean: bueltatxo bat eman, giroa ikusi eta goizeko enzierroekin gozatu...

Gero, Karmengo Amaren jaiak hainbat festa antolatu dira arrantzale munduan. Gure auzotik urruti joan gabe, bertara joan nahi izan duenarentzat, eguraldi bikainak izan ditugunez nora nahi irtetzeko giroa izan dugu.

Bat oporretan dagoenean, hau guztia egiteko denbora izaten da, agian, lo gehiago egin goizean, eta gero egun guztia ongi pasatzeko modua lagun artean. Batzuetan zalantza bat badugu. Aurtengo udan, zer egin genezake gaurkoan? Hondartzara joateko eguraldi ederra ikusi, eta ez ote gara txapoteaz zikinduko! Ez ote da hobe izango zuhaitz baten itzalean gelditzea!

Hala ere, ziur naiz ahalik eta ondoen pasako duzuela. Beraz, ondo pasa oporretan!



Atxegalde



MARIA  
JESUS  
URBIETA



**PAKO  
AGUDO**

Santutenea

## Opor garaiak

**K**aixo, hemen gaude berriro ere gure auzoko berriak emateko. Egia esan, berri askorik ez ditut topatu azken egun hauetan. Beharbada, nabarmenena, oporren hurbiltasuna izango da somatu dudana gauza bakarra. Kalera atera besterik ez dago udan gaudela ikusteko. Ume guztiak dagoeneko oporretan eta goizean goiztik auzoa alaitzen dabilta. Badirudi urte sasoi honetan inoiz baino ume gehiago dagoela.

Guraso gehienak oraindik pixkat itxaron beharko dute oporrez gozatzeko. Seguruenik aurten ere gure auzoa hutsik geratuko zaigu abuztua gerturatu orduko, gehienak kanpora joateko ohitura baitute. Oporretatik bueltan oporretako ibilerak eta pasadizuak aipatzeko aukera polita izango dugu, gainera festak ere hortxe ditugu.

Bestalde, esan nahiko nuke eta ez da lehengo aldia aipatzen dudala, gure parkeko adokinak

oso egoera tamalgarrian daudela. Oso arrisku-tsua da gure auzoko zenbait tokitik pasatzea, adokinak aterata baitaude. Entzun dudanez, orain gutxi gure auzoko batek adokin batekin estropoz egin eta erori egin omen zen eta, ondorioz, zauritu egin omen zen.

Besterik gabe, oporrak ondo igarotzea opa dizuet guztioi.



## Aupa mutilak!



**EIDER  
JAUREGI**

Urdaiaga

**G**ogoan dut umetan Haimar eta Joseba Zubeldia, Iker eta Iratiz Lizaso, Xabier eta Jon Lizaso, Endika, Errazkin eta beste hainbatek elkarrekin entrenatzen zuteneko garaia. Garai hartan ere, talde honetako hainbatek sariak jaso zituzten baina pixkanaka pixkanaka talde hau desagiten joan zen, istripuak eta eskatzen zuen sakrifizioa zela medio.

Haimarrek eta Josebak aurrera egitea erabaki zuten, oso gazterik profesional mailara igoz. Lehen sorpresa Haimarrek Euskal Bizikleta irabazi zuenean jaso genuen. Inork ez genuen uste hain gora iritsiko zenik, baina begira. Oraingoan, Frantziako Tourrean dugu Iban Mayo taldekidea eta biak, lehen postuetan munduko txirrindularirik onenekin. Tourmalet inguruak ikurrina eta kolore laranja betetzea lortu duzue. Sinestezina bezain



zoragarria, bejondeizuela Haimar eta konpainia. Baina hau ikusita, ametsetan jartzen naiz eta bi anaiak Tourrean ikusten zaituztet elkarrekin lehian lehen postuaren bila. Postuak postu, eta ametsak amets, zorionak bioi egiten ari zareten lanarekin!



## Uda

Urteroko moduan, udara iritsi bezain laister, beraren eraginez beharbada, Aginagara, edo hobe esanda, Aginagako kaxkora, gero eta jende gehiago azaltzen da. Uda usainak, festa gogoak eta eguraldiak jendearengan eragiten duen jarrera aldaketa nabarmentzen da hemen, beste herrietan ere izango da halakorik, noski. Baina, elkartean, Arrate tabernan eta frontoian jende dexente ibiltzen da, beste urtaroeekin alderatuz. Adibide gisa, aurreko asteburuan elkartean leku falta izan zen, aspaldiko partez.

Dagoen herri giro hau aprobetxatuz, ea aurtengo udan, daukagun frontoi dotore hau aprobetxatuz, pilota txapelketaren bat ikusteko aukera dugun eta herriko pilotariak lanean jartzen ditugun.

Besterik gabe, gogoratu astelehen honetan berriz ere festetako bilera izango dugula apaiz etxean 21:00tatik aurrera. Gogoratu aginagatar guztiak zaudetela gonbidatuta.

Ondo pasa oporrak!



Aginaga



OXKAR  
SANTAMARIA

## Herri antzerkia hilaren 29an, ez 28an

Aurten ere, Herri antzerkia izango da herriko festetan. Seigarren urtez prestatu du antzerki taldeak emanaldi hau, eta espero dugu, urtero bezala, arrakastatsua izatea. Hala ere, bada azken orduko aldaketa bat. Festetako programan agertzen denez, eta baita Noaua!ko aurreko zenbakian ageri bezala, uztailaren 28an aipatzen da antzerkiaren data bezala, baina partaide baten arazo pertsonalak direla medio, egun bat atzeratu da emanaldia, eta beraz, uztailaren 29an egingo da emanaldia, ordu berdinean, hau da, gaueko 22:30etan.

Beraz, antzerkizaleak zaretenok, badakizue. Ohar hau batez ere, usurbildarrei zuzenduta dago, izan ere, Zubietan ahoz aho azkar zabalduko baita berria eta horregatik, Noua erabiliz, mezu hau zabaldu nahi dugu, badakigu Usurbildik nahiko jende hurbiltzen dela eta.

Bestalde, aurtengo festetako programa oparoa agertzen zaigu. Ikusten da, aurten ere, Zubietako Jai Batzordeko gazteek lan ugari egin dutela, izan ere, adin guztientzat eginiko programa baita, era



Zubietan



MIKEL  
BENGOETXEA

guztietako ekintzak daudelarik.

Batzuk aipatzearren, aurten badugu nobedade nagusi bat, izan ere, lehen aldiz, Rai txapelketa antolatu baita, hau da, zaldiz eginiko lasterketa, zaldien erresistentzia saritzen delarik. Bestelako ekintzak, gutxigora behera beste urtetakoak: afari herrikoia, zikiro jana, kontzertuak, erromeria, oilasko biltzailak, errebotea...

Beraz, ondo pasa nahi duenak, ez dauka aitziarik. Espero dezagun eguraldia gure alde egotea...

# Koalizioa osatzea ezinezkoa izan denez, EAK minorian gobernatu du

**U**ztailaren 15ean osatu zen legealdi berrirako udal gobernua. Ekainaren 14an ez bezala, udalbatza Usurbilgo udal-txean bertan bildu ahal izan zen. Pleno atarian, udaltzaingoak bertaratzaren ziren guztiak identifikatzeko agindua zuen. Bilkurak luze jo zuen eta EA zein EAJ-PNV arteko desadostasunak agerian geratu ziren.

Ezustean harrapatu gintuen plenora-ko deialdiak. Eguerdiko 13:00erako egin zen deia eta akaso horregatik gutxi izan ziren bertaratu ziren herritarrek. PSE-EE/PSOeko zinegotzi bat ezik, gainontzeko guztiak bat egin zuten alkateak eginiko deialdiarekin.

Plenoa astuna izan zen, arau eta legeen interpretazioan denbora asko joan zen. Funtsean, udal gobernua eta gobernu batzordeak osatzeko bildu zen udalbatza. Plenoak aurrerantzean hilean behin ospatuko dira, hilabete bakoitzeko laugarren astean, eta asteartez. Gobernu batzordeak ere, asteartez, hilabeteko 2. eta 4. asteetan. Proposamen honek denon oneritzia jaso zuen.

Legealdi berrian, hauek dira martxan

izango diren batzorde iraunkorrak: Hirigintza/ Ingurugiroa, Zerbitzuak, Ongizatea, Soziokultura Sustapena, Garapen Ekonomikoa/ Nekazaritza, Pertsonalgora, Ogasuna, Antolakuntza eta Kontuen Batzordea. Giza Eskubideen Udal Batzordea beharrezkoa denean bilduko da.

Proposamen honek EAJ-PNVren aurkako botoa jaso zuen. PSE-EE/PSOE, aldiz, abstentzioaren alde azaldu zen eta azkenean batzordeen gaia EAK proposatu bezala onartu zen. Batzordeen konposaketak ere ika-mika eragin zuen. Pedro Ibarrek, EAJ-PNVko kideak, proportzionalitatea errespetatzea eskatu zuen. Gobernu batzordeen osaketan, EAK bezain besteko ordezkariak eskatzen zuen EAJ-PNV alderdiak. Baina proposamen hau ez zen aurrera atera. Dena den, Luis Mari Ormaetxeak udaletxeko erreglamendu organikoak aldatzeko konpromisoa hartu zuen.

Legealdia ez da erraza izango. Pentsa, Luis Mari Ormaetxeak kalitatezko botoa erabili behar izan zuen. Beste organo eta erakundeetan Udalak izan behar duen ordezkariak zehazteko unean gertatu zen hori. EAJ-PNV ez



UDALBATZA BERRIAREN OSAKETA.

zegoen ados EAK aurkeztu proposamenarekin eta nagusigotasun osoa izango balu bezala jokatzeko ari zela leporatu zion Pedro Ibarrek EARI. EAK, aldiz, udal hitzarmena sinatuko balitz, gaia berraztertuko litzatekeela esan zuen. Bien bitartean, aurkeztutako proposamena mantenduko zuela adierazi zuen. Bozketan, EAK eta PSE-EE/PSOeko ordezkari bakarrak Luis Mari Ormaetxearen aldeko proposamena onartu zuten. PP eta EAJ-PNV aurka azaldu ziren. Berdinketa, alkateak duen kalitatezko botoarekin gainditu zuen.

Dedikazioari dagokionez, Luis Mari Ormaetxea alkatea lan-saio erdian ari-tuko da udaletxean. Salome Portu eta Ibon Beristain ere, (biak EAKo zinegotziak) lan saio erdian.

## Alkateak ez du akordioaren aukera baztertzen

**Udal gobernua soilik EAREN esku geratu da. Agintean aritzeko ez da egoera erosoena izango, ezta?**

**L. M. Ormaetxea:** Usurbilgo EAJ-PNVk gurekin gobernatzeari ezezko borobila eman dio. EAJ-PNV alderdiaren Gipuzkoako exekutibak proposamen onargarria dela deritzo, baina halere, Usurbilgo EAJ-PNVk, bere alderdiaren agindu zuzenei desobedituz, oposizioan geratzea erabaki du. Horrek oztopo izugarria suposatzen du Usurbilen garatu nahi diren hainbat asmoetako.

**EAJ-PNVrekin koalizioa osatzea ez da posible izan. Zergatik? Epe laburrera akordiorik gauzatzeko girorik ba al da?**

Tamalez, ezin izan dute hauteskudeetan izan dituzten emaitzak asumitu; siko-logikoki bakarrik gobernatzeko prestatu ziren, ez beste batzuekin elkarlanean ari-

tzeko. Hori oraindik ez dute superatu. Usurbilgo EAJ-PNVk elkarrekin gobernatzeko eskeintzari uko egin badio ere, gobernu egonkor bat lortzea gure lehentasunetako bat da eta ez dugu baztertzen etorkizun batean akordio bat lortzea.

**EA eta EAJ-PNV arteko desadostasunak agerian geratu dira plenoan. Udalgestioaren giltza sozialistek izan dezakete.**

Azken plenoan gertaturikoa sinestezina da. EAJ-PNVk, Usurbilgo alkateak espainiar konstituzioa zin egin zezan, ahalegina egitea oso larria da. EAJ-PNVk hausnarke-ta sakona egin behar du Usurbilen dituen ordezkariak.

Legealdia luzea izaten da eta akordio puntualak alderdi guztiekin izatea, kasuan kasu, ohikoa izaten da. Une honetan akordio egonkorak alderdi ez abertzaleekin osatzea ez dago gure asmoetan.

**Euskara eta Gazteria terminoak ez ditut batzordeen izendapenetan topatu.**

Batzorde informatzaileen antolaketa arrazionalizatu dugu. Azken legealdian frogatu den bezala, Gazteria batzordea izatea ez du esan nahi materia horretan ezer egingo denik. Gazteria, Hezkuntza, Kirola, Euskara eta Kultura arloak Soziokultura Sustapena batzordean landuko dira.

**Aholku batzordeak mantenduko al dira legealdi berrian?**

Aholku batzordeak izango dira. Beti proiektu konkretu batzuei loturik eta herritarren eta elkarten aportazioak jasotzeko. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia indarrean jarriko dugu epe laburrean eta hor izango dugu osaturik lehen aholku batzordea.





## Lizarratik bueltan

**S**arai Lizaso, Ane Rodriguez eta Itziar Irazusta itzuli dira Lizarratik. Noaua! Kultur Elkartek Euskal Herriko beste euskara elkarteekin batera antolatu dituen udalekuetan egon dira. Lizarran 14 egun igaro ostean, penaz itzuli dira etxera. "Gurasoak ikusi, eta berriro bueltatuko nintzateke", horixe esan zigan Saraiek.

Usurbildik haur gutxi joan diren arren, hiru neskatxak gustora ibili dira Lizarran. Guztira 90 ume izan dira eta herri ezberdinetako haurrak nahastuta egon dira: Soraluze, Elgoibar, Lasarte, Ordizi eta Usurbil.

Hamalau egunetan primerako egualdia izan dute eta honek era guztietako jarduerak egitea ahalbidetu du. Saraiek oso ondo pasa dutela aitortu digu: "Ez dugu aspertzeko unerik izan. Ekintza ezberdinak egin ditugu: tailerrak, jokoak, mendi irteerak, pizkina edo errekarra joaten ginen, gaubekalak...".

Egun bakoitzak ezaugarritze jakin bat izaten zuen. "Zikinaren eguna



UZTAILAREN 14EAN BUELTATU ZIREN ETXERA. NEKATU AURPEGIAK ZITUZTEN, BAINA POZIK.

ospatu genuen behin. Froga ezberdinak egin behar genituen eta galduz gero, auskalo zerrekin zikintzen zigiten".

Sanferminak Iruñean bakarrik ez, Lizarran ere izan zen entzierrorik. Zapi gorria lepotik lotu eta sukaldeko karruarekin zezenketak egin zituzten. Beste batean, aldrebesaren eguna izan omen zuten: gosaltzeko afaria, bazkaltzeko merienda, meriendatzeko bazkaria eta afaltzeko gosaria. Arropak ere alderantziz jantzi zituzten.

Finean, ederki pasa omen dute eta Saraiek datorren urterako herritarrak animatu nahi ditu.

**ABUZTUAN OPORRAK  
HARTUKO DITU NOAUA!  
ALDIZKARIAK**

**U**rtero egin ohi dugun bezala, abuztuan ez dugu Noaua! aldizkaririk kaleratuko. Hurrengo aldizkaria irailaren 12an kaleratuko dugu, beraz, ika-mikaren bat ekarri nahi baduzu edo etxekoren bat zoriendu nahi baduzu, azken eguna irailaren 8a izango duzu.

Azkenik, ezin genuke amaitu gure irakurle eta bazkide guztiei eskerrak eman gabe. Izan ere, azterketa sozilinguistikoan ikusiko ditugun datuek aurrera egiteko indarra eta gogoia eman baitigitue. Mila esker!

**ATAL BERRIEKIN  
ELIKATU DUGU  
NOAUA.COM**

**A**zken aste hauetan noaua.com Araberritzen aritu gara. Dagoeneko martxan daude atal berriak: batetik, zerbitzuen gida zabaldua aurkituko duzu. Bertan tren eta autobus ordutegiak, gremioen gida, herriko ostalaritzaren helbide eta telefonoak... topatuko dituzu. Bestetik, osasun gida: urteko goardiako farmazien gida, odol emaleen egutegia, masajistak... topatuko dituzu.

## Datorren hastean bazkidetza kobratuko da

**A**zken alean iragarri bezala, datorren hastean bazkidetza kuota kobratuko da. Aurten ez da 30 euro kobratuko orain arte bezala, 36 euro bainik. Izan ere, urte hasierako bazkideon batzar orokorrean bazkidetza 6 eurotan igotzea erabaki baitzen.

Bazkidetza kontu korrante bidez kobratzen dizueguno datorren hastean kenduko zaizue. Aldiz, ordainketa eskuz egiten duzuenok jada egin beharko duzue ordainketa,

abuztuan gure egoitza itxita egongo delako. Bi modu dituzue; edo gure kontu korrante sartu dirua edo gure egoitzara ekarri. Hauexek dira gure kontu korranteko zenbakia:

- Euskadiko Kutxa: 3035 0140 34 1400010826

- Gipuzkoa Donostia Kutxa: 2101 0069 15 0010543064

Hala ere, edozein arazo edo argibiderik nahi izanez gero, badakizue non gauden.

**IGELTSE ITZ  
t  
INTU**

Ja 12 11 7 8 3 5 5 5  
2 1 3 2 3

**L T ILL E**

**ITU GINTZ G SET E GINTZ  
INST L KUNTZ K**

ITZTTX K L F . ( 3 ) 3 2 35-3 33  
EHF M I 21

**PATRI**

**JATETXEA**

- Egurterako menuak  
- Plater kabanatutak  
- Ogintzetak

Tel: 943 36 27 25  
Kale nagusia, 14

## Lanbide hastapen ikastaroetan izena emateko epeak zabalik jarraitzen du

**E**usko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta eskualdeko hainbat herrien artean adosturiko lankidetzak hitzarmenari esker, martxan dira Lanbide Hastapeneko tailerrak. Tartean, Aginagan eskainiko diren bi ikastaro. Izena emateko epea zabaldu berri da.

Ikastaro hauetan parte hartu ahal izateko, 16-21 urte bitarteko gazteak behar dute izan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortu ez (D.B.H. graduatua lortu ez), langabezian egon eta ofizio bat ikasi nahi duenarentzat bideratuak daude.

Ikastaroak bi urtetako iraupena dute:

- Lehenengo ikasturtea 2003/04. Urriatik ekaina bitartean. 1.000 orduko formakuntza teoriko-praktikoa jasoko lukete.

- Bigarren ikasturtea 2004/05. Urriatik martxora bitartean 550 orduko sakontza ikastaroa eta apiriletik uztaile bitartean eskualde mailako lantegietan 450 orduko lanpraktikak burutuko lituzkete.

Bertan, lanbide bat ikasteaz gainera lantegietan praktikak egiteko aukera zabaldu dute. Eta horren ondorioz lan-kontratu bat lortzeko errezitasun handiagoa ere.

Honez gainera, ikastaro hauetako ikasleei berriro ikasketen mundura itzultzeko bidea zabaltzen zaie: DBH graduatuak eskuratzeko



IZENA EMATEKO UDALETXERA HURBILDU EDO 943 37 19 51 TELEFONORA DEITU.

laguntza eskainiz edota lanbide heziketan sartzeko aukera zabalduz.

- USURBIL
- Sukaldaritza / gozogintza
- Ile-apainketa / edergintza
- LASARTE-ORIA
- Igeltseritza / Teknika berriak
- Zurgintza eta egurra
- ANDOAIN
- Automobilaren karrozeria
- Galdaragintza / Soldadura

### BI URTEKO IKASTAROAK

#### Lehenengo ikasturtea 2003/04

Urriatik-ekaina bitartean. 1.000 orduko formakuntza teoriko-praktikoa jasoko lukete.

#### Bigarren ikasturtea 2004/05

Urriatik-martxora bitartean 550 orduko sakontza ikastaroa eta apiriletik-uztaile bitartean eskualde mailako lantegietan 450 orduko lanpraktikak burutuko lituzkete.

### SANTUENEA ETA AGINAGAKO NAGUSIAK, KZGUNEAN

**K**Zguneak Internetera hurbildu. Knahi ditu gazte nahiz heldu. Irudian dituzue Santueneako nagusien egoitzako hainbat lagun. Aginagako Arrate egoitzako lagunak, aldiz, uztailearen 22an eman zioten hasiera oinarritzko ikastaroari.

Abuztuan itxita egongo da KZgunea baina irailaren 1ean berriro martxan izango da. Egun horretan hasiko da ikastaro berri bat eta oraindik ez da taldea guztiz osatu. Izena eman ezazu uztailearen 31a baino lehen:

943 36 14 12 (goizez).



### ZUMETA ETA ARBELOA, PLAZARA

**J**ose Luis Zumeta eta Gregorio Arbeloa albiste izan dira azken egunotan. Zarautzko Kayuan ikusgai izan dira Arbeolak berriki margotu dituen akuarelak.

Zumeta, berriz, Bilboko Guggenheim parean dagoen Epelde & Mardaras galerian topatuko duzue, Euskal Herriko beste hainbat artisten lanekin batera. Erakusketa hau irailaren 1ean amaituko da.

### HILERRI BERRIA ZABALIK, 8:00ETATIK 21:00ETARA

**H**ilerri berria egunez zabaltzea Herabaki berri du Udalak. Udaltzaingoa arduratzen da hilerriko atek ireki eta ixteaz. Bisitak egiteko aukera, 8:00etatik 21:00etara



# MAHUKA

G z n t m k u m z k n  
m k r r u z t  
h m n u r k t u k u z u

Et. st. k. l. 3  
T. f. 33 11



# TXIRIBOGA

## taberna

pintxoak, bokatak eta plater konbinatuak

T. f. 943 36 13 98



# Euskararekiko motibazioa eta erabileraren artean etenak daudela pentsa daiteke


**A**zken aldizkarietan, euskararen ezagutza eta erabilera aztertu ostean, eta azterketa soziolinguistikoak utzi dizkigun datu aipagarrien azterketarekin bukatzeko, ale honetan euskararekiko jarrerak ikusiko ditugu.

Euskara usurbildarrek maitatzen duten hizkuntza dela adierazteko adina datu uzten ditu azterketa soziolinguistikoak, baina maitasun horrek ez du ziurtatzen harreman mota des-

berdinetako komunikazio hizkuntza euskara izatea. Euskararekiko motibazioa eta euskararen erabileraren artean salto handia dagoela pentsa daiteke, beraz.

Era berean ere, lau herritarretik hiruk (%75) herrian euskara gaur egun hitz egiten dena baino gehiago hitz egitea nahiko luke. Udaleko hizkuntzari dagokionean berriz, herritarren %93ak euskarari lehentasuna eman behar diola irizten du.

- Usurbilen gero eta euskara gehiago ala gutxiago erabiltzen da, adinaren eta euskararen ezagupenaren arabera %




Euskararen erabileraren bilakaeraz herritarrek duten inpresioa adinaren eta euskararen ezagueraren arabera desberdina da: honela, adinaren arabera, azpimarra daiteke euskararen erabileraren erantzunik

ezkorrena 16-24 urte bitartekoengatik jasotzen dela. Oso nabarmena da adin-geruza horretan 5etik 1ek gero eta euskara gutxiago erabiltzen dela erantzuten duela eta beste 4tik 1ek berdin erabiltzen dela. Multzok honetaz ere uste du gaur egun "modako" hizkuntza erdara dela.

Hizkuntza ezagueraren arabera, erantzunik ezkorrena, euskaldunengatik jasotzen da, erdaldunen artean gero eta gutxiago erabiltzen dela uste duen inor ez dagoelarik. Era berean, euskara orain baino gehiago erabiltzeko prestutasuna adierazten duten euskaldunak asko dira (oro har %44 eta bikotekidearekin %30). Hala ere, ezin pentsa daiteke berez bakarrik asmo horiek aktibatuko direnik.

Beraz, hutsuneak edo gabeziak maila pertsonalean egon litezke, bakoitzak euskarari eman eta euskaratik jasotzen duen horretan, euskarak bakoitzari sorrarazten dizkion bizipenetan, komunikazio hizkuntza gisa bakoitzak euskara zenbateraino baleko eta zenbateraino eraginkor eta erabilgarri ikusten duen aztertzerakoan.

- Euskararekiko azaldutako interesa, adina eta euskararen ezagutzaren arabera



Euskararekiko norberak duen interesa adina eta euskararen ezagueraren arabera aztertuz gero, esan hizkuntzarekiko interes gutxi duten herritarren ehunekoa altuagoa dela 45 urtetik gorakoan artean, non euskararekiko interes gutxi edo batere interesik ez dutenen ehunekoa %13ren inguruan kokatzen den. Hizkuntza ezagueraren arabera, esan euskaldun guztiei interesatzen zaiela bere hizkuntza, ia-euskaldunen artean ere interesa badagoela, eta, aldiz, euskararekiko interes gutxi edo batere interesik ez duela erdaldunen %40ak. Beraz, euskara "asko" interesatzen zaiela erantzuten duten herritarrek batez beste 10etik 6 dira eta ehuneko honek behera egiten du 45 eta 64 urte artekoan artean. Datu positiboa al da hau? Norberak atera ditzala bere konklusioak.

## Maite Iribar: "Ez dugu erronka txikia eskuartean"

**S**iadecok egindako azterketa soziolinguistikoak Usurbilen euskarak bizi duen egoeraren berri eman eta datozen bost urteotako egin beharreko bidez proposamena egiten du.

Euskara sustatzeko jardura plan honen bultzatzailea Udala izango bada ere, ezinbestekoa da bertan txertatzea herriko gizarte eragileen ekimenez euskara arloan egiten den lana (Erumeta Euskaltegia, Noaua, Ikastetxeak, Euskal Txokoak, Haur Eskola, aisialdiko eta kultur arloko taldeak...) eta plan-

gintza estrategiko bakar eta bateratuan aurrera egitea.

Udaletik uste dugu garaia iritsi dela herrian euskalgintzan lanean ari diren indar guztiak biltzeko eta enbor bakarrean txertatu eta uztartzeko Siadecok azterketa soziolinguistikoan proposatzen duena, Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak dioena, UEMAren proiektua, Kontseiluak proposatutakoa...; azken finean, Usurbilgo euskararen geroa guztion artean eta guztion partaidetaz bideratzeko.

Ez dugu, bada, ez erronka txikia eskuartean!!!

## Pedro Ibarra, EAJ-PNV: “Koalizioa osatzeko prest gaude oraindik”

**M**aiatzaren 25eko hauteskundeetan ostean, orriotan alderdi guztien iritzia bildu ahal izan genituen, EAJ-PNVrenak izan ezik. Bi hilabeteren buruan, Pedro Ibarra gure galderei erantzuteko prest azaldu da. Usurbilgo EAJ-PNV alderdiko buruarekin pillean diren gaiak aztertu ditugu.

**Hauteskundeetan EAK boto gehiago eskuratu zituen. Zein da Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak egin duen irakurketa?**

Lehenik eta behin, nire eskerrak eman nahi dizkiet Eusko Alderdi Jeltzaleko kide guztiei, baita gure alde botoa eman zuten guztiei. Alkate izateko eta herrian gobernatzeko nigan konfidantza jarri zuten herritarrei eta EAJ-PNV alderdiari. Baina hauteskundeetan emaitzen ostean, ezingo diogu konfidantza horri erantzun. Gure taldea eta gure programa usurbildarrena ez dela behar bezala iritsi onartu behar dut. Bide batez, Madrilek inposaturiko “legalitatearen” baitan, gure zerrenda ez da bozkatuena izan eta hori ere onartzen dugu. Guri botoa eman digutenen espektatibak ezin izan ditugu bete.

Bestetik, EA eta EAJ-PNV alderdien zuzendaritzak koalizioan aurkezteko akordioa iritsi ziren. Tamalgarria da EAK hauteskunde aurreko akordioa bete ez izana, hori Usurbilgo gehiengo boto emaile demokratikoaren kalterako izan baita. Aitzakia, nik euskaraz ez hitz egitea eta ni usurbildarra ez izatea, nahiz eta bertan 22 urte egin ditudan.

Koalizioan emandako botuen gehiengo nagusia jaso ahal izango genuen, “balio-gabeak” baino askoz gehiago. Herri Lanek baino boto gehiago eskuratuko genituzke, nahiz eta emaitza “legalak” berdinak izan: EAJ-PNV/EA, 10 zinegotzi; PSE-EE/PSOE 2 zinegotzi, PP zinegotzi bat.

Herri Lanen 1.176 botoak kontuan hartuz, emaitza honakoa izango zen, EAJ-PNV eta EA alderdien arteko 1.483 boto-

ak batuz gero: EA + EAJ-PNV koalizioa, 7 zinegotzi; Herri Lan, 5 zinegotzi; PSE-EE/PSOE zinegotzi bat.

Bestetik, EA eta EAJ-PNV alderdien alde emandako botoak alderatuz, Foru Aldundiara koalizioan joan ginen eta 300 boto gutxiago lortu genituen. Aralar, aldiz, ez zen udaletxera aurkeztu baina Foru Aldundiara bai. Aralarrek Foru Aldundian jasotako 300 boto horiek Usurbilgo udal hauteskundeetan EAra joan zirela argi ageri da. EAJ-PNVk, aldiz, udal hauteskunde hauetan aurrekoetan baino boto gehiago eskuratu ditu. Horregatik, EAK alkatetza lortu badu Aralarretik jasotako botuei esker izan dela uste dugu. Aralar, nahiz eta iragarri, azkenean ez zen udal hauteskundeetara aurkeztu.

**Karguak Foru Aldundian hartu behar izan zenituzten.**

Egun batzuk lehenago, “ekitaldien programa” iragarri zen UHL plataformak antolatuta. Kargu hartzea ez zela paketsua izango konturatu ginen. Horregatik, goizeko 9:00etan kiroldegiaurrean bildu ginen udaletxea zein egoeratan zegoen baloratzeko. Jendez gainezka zegoen, ongi etorria “prestatuta” ziguten. Horren aurrean, Foru Aldundiara jotzea erabaki genuen. Gure herritik kanpo joan behar izatea penagarria izan zen, baina jazarpen giro horren aurrean, UHLk jaso dituen botoen %10 batek eraginda, ez genuen borroka horretan sartu nahi, hori elkarbitza onaren kalterako litzateke.

**Kargu-hartze ekitaldian, ez zenuten EAK aurkezturiko hautagaia babestu. EA eta EAJ-PNV arteko hitzarmenak zioen alderdi bozkatuenak (kasu honetan, EA) beste alderdiaren babesa jaso behar zuela (kasu honetan, EAJ-PNVrena). Baina hori ez zen bete. Honek ez al du zure alderdian ikamkarik eragin?**

Hauteskundeetan aurretik, bi alderdien hitzarmena bikoitza zen: batetik, bi alder-



PEDRO IBARRA, EAJ-PNV TALDEKO BURU.

diak koalizioan joango ziren herriak zehazten ziren, zerrenda bateratuan alderdi bakoitzeko hautagaien ordena ere argituz. Eta bestetik, alderdi bakoitzak bere zerrenda propioa aurkeztu zuen herrietan, boto gutxien jasotzen zuen alderdiak bestea babestu beharra zuela. Hitzarmen horren arabera, EAJ-PNV eta EA koalizioan aurkeztu behar genuen, zerrendaren 1,3, 5, 7 eta 8 postuak EAJ-PNVk izendatuko lituzke eta 2, 4, 6 eta 9 postuak EAK. Alkategaia gure alderdiak izendatu behar zuen. Kasu honetan, ni izan nintzen izendapena jaso zuena.

Lehen aipatu dut zergatik Usurbilgo EAKo buruzagiek ez zuten bi alderdien zuzendaritzek sinaturiko hitzarmenaren lehen zatia bete. Hortik aurrera, EAK hitzarmena ez betetzean, akordio hori EAK hautsi zuela ulertu genuen eta ez gintuela hitzarmenaren bigarren zatia betetzera behartzen: alderdi bozkatuena babestea. Usurbilgo EAJ-PNVko kide gehienek jarrera hori hartu genuen, ni alkate izateko EAJ-PNVko botoemaileek emandako konfidantza errespetatu behar genuela uste genuen, are gehiago EAK bezain besteko zinegotzi kopurua lortu genuenean. Planteamendu honek ez du gure alderdian inongo barne arazorik eragin. Nahiz eta EAren desioa bestelakoa izan: gure gure hautagaia bozkatzeagatik, gure alder-



diaren zuzendaritzak guri kargu hartu behar izatea.

Anekdotak gisa, Bizkaiko herri txiki baten adibidea jarriko dizuet. EAJ-PNV eta EA, bakoitza bere aldetik aurkeztu zen. 9 zinegotzietatik, EAJ-PNVk 4 lortu zituen, EAK bat eta herri zerrendak —ez ilegalizatuak— beste 4. EAJ-PNVrena izan zen bozkatuena. Bi alderdietako zuzendaritzen akordioa erabatekoa izan arren, EAKo zinegotzia da alkatea, bere botoa eta herri zerrendaren 4 zinegotzien botoak jaso ostean. EAJ-PNV oposizioan da.

### **EA eta EAJ-PNV arteko negoziazioak zergatik atzeratu dira hainbeste?**

Ekainaren 14aren ostean, harremanak izan ditugu balizko gobernu-koalizioa negoziatu asmoz. Gobernu koalizioa iristeko prest egon gara eta prest gaude oraindik. Ziur gaude herriaren gehiengoak alderdi abertzale demokratikoen koalizioa nahi duela. Baina gaur egungo alkatearen planteamendu autoritario eta harroaren aurrean, udal gobernu osatzeko koalizioa iristea ezinezkoa izan da —soilik hain garrantzitsuak ez diren udal txeko gobernu batzorde batzuen presidentzia eskaintzen zigun, gure zinegotzi batentzat lan-saio erdia eskainiz—.

### **Aurrerago gauzatuko al akordio hori?**

Gobernu osatzeko akordioa iritsi ez bagara ere, herriaren onerako denean kolaboratzeko jarrera azaldu diogu EAri, baina oraingo oposiziotik. Horregatik koalizio osatzeko prest gaude oraindik, beti ere alkatearen jarrera autoritarioa eta harroa aldatzen bada.

### **SOZIALISTEN PAPERA**

**Sozialisten babesarekin gobernatzeko aukera ere eman daiteke. Aztertu al duzue aukera hori?**

Aukera hori ez dugu oraindik aztertu, nahiz eta teoriarik posible izan. Dena den, lehen plenoan gertatu zena aukera horren kontrakoa izan da. Oraingoan, PSE-EEko zinegotziak EAren puntu guztiak babestu zituen plenoan. Mankomunitate eta beste erakundeetako ordezkariak erabakitzeke, alkateak aurkezturiko zerrendan jada izendatua zeterren PSE-EEko zinegotziaren izena San Markos mankomunitaterako udaletxearen ordezkari bakar gisa. Ikusitakoaren arabera, EA jadanik gobernu-akordio batera iritsi da PSE-EE/PSOerekin, eta tamalez, luzera jo dezake.

### **EAREKIKO HARREMANAK EAKo kideekin zer nolako harremanak dituzue?**

Behintzat edukatuak dira, eta oraingoan egin den pleno bakarrean ikusi denaren arabera, ezin dira urrutirago iritsi. Azpimarratu nahi dut alkateak, egungo araudiaren aurka, ez digula lokal egoki bat eman nahi izan. EAJ-PNVko bost zinegotziak leku apropos bat behar dugu lanerako eta usurbildarrak jaso ahal izateko, gaur egungo egoitza txikia baita eta ez ditu gure beharrak asetzen. Udaletxeko batzordeetan EAK dituen adina ordezkari eskatu ditugu, bi taldeak zinegotzi kopuru berbera dugulako. Alkateak hori ere ez du onartu nahi izan. Dirudienez, EAKoak dira gurekin harremanak izan nahi ez dituztenak.

### **UHLREN ORDEZKARITZA UHLren zerrenda legez kanpo geratu zen baina hauteskundeetan baliogabe bako botoak nagusi izan ziren. Korronte hori ere ordezkaturik gera dadin, formularen bat bilatu beharko litzateke?**

Arestian Usurbilgo Herri Lan elkargu-neak bildutako botoen inguruan hitz egin



EAJ-PNVK BOST ZINEGOTZI DITU.

dut. Dena den, beste hausnarketa bat egin nahi dut. Madrildik plataforma horren zerrenda legez kanpo utzi dute modu bidegabean. Baina AUB eta herri plataformak ilegalizazioaren bila joan direla dirudi. Ziur nago beste zerrenda batzuetan gertatu bezala, UHLren zerrenda bestelakoa izango balitz eta hiru edo lau izen ez balitu sartu, legez kanpo geratzea sahiestu ahal izango zuela. Egoera orain bestelakoa zatekeen. Eta bere partehartzea udalgintza mailan normaltasun osoz emango litzateke. Legez kanpo geratzean, alderdi sozialistak, Usurbilen, aurreko hauteskundeetan baino boto bat gutxiagorekin bigarren zinegotzi kargu bat eskuratu du. Eta PPK, aurreko hauteskundeetan baino 33 boto gutxiagorekin, zinegotzi bat eskuratu du. Baina esan beharra dago UHLri egotzitako 1.176 botoak Batasunak aurreko udal hauteskundeetan bilduriko 1.800 botoetatik urrun dagoela. UHLren partehartze-ari buruzko galdera airean da, baina oraindik ez dugu partehartzea ziurtatuko duen legezko erantzun bat topatu. Denok dakigu gai honen inguruko hartuemanak existitzen direla gure alderdiko zuzendaritza eta AUBren artean. Guk udaletxean eta gure aukeren arabera, arazo honi buruz Euskadi Buru Batzarraren aginduetara izango gara.

Imanol Ubeda

## Ibarretxe Plana, irailerako azterketa

**Madrildik datorren eraso politikoak eta mediatikoak Lehendakariaren proposamena ezerezean uziko duela uste al duzu?**

Pedro Ibarra: Lehendakariak ideiak oso argi dauzka. Bere proposamena hori da; ikertua, kritikatu, eta Euskadin bizi garenon ekarpenekin moldatua izan daiteke-

en proposamena. Helburua, estatu mailan Euskal Herriaren autodeterminaziorako eskubidearen errekonozimendua eskuratzeko bidea topatzea, denon artean. Lehendakariak, hala ere, balizko herri kontsultaren aukera bake giroko egoera sozial baten menpe uzten du. Madrildik iristen den eraso politiko eta mediatikoaz

gain, ETak atentatuekin jarraitzen duen bitartean, kontsulta ezinezkoa izango da eta Lehendakariaren proposamena ezingo da hezur-mamitu. Bake giroan, Euskadin bizi dugun gatazka politikoa gainditzeko euskaldun guztiak hitz egin, negoziatu eta soluzioak bilatu ahal izango ditugula uste dut.

## Erakustaldi ederra Haimar Zubeldiarena

**A**zken txanpan da Frantziako Tourra. Parisera iritsi arte, baina, ez da behin betiko sailkapena finkatuko. Ikusi behar Haimarrek zein postuetan amaitzen duen: podiumera iritsiko ote den, laugarren amaituko duen ala bostgarren... Berdin dio. Tourrean aurrean ibili den aldetik, munduko txirrindulari onenen multzo txiki horretan sartu da. Eta hori oso gutxi esan dezakete.

Gutxi edo asko, nork ez ditu Haimarren eta Euskaltel-Euskadiren gorabeherak jarraitu? Bere etxekoek behintzat ez dute besterik buruan. Gurasoak Pirinioetan ikusi zuten semea, Armstrong Ullrich eta Vinokourovoren parean. Joseba, berriz, etxean geratu zen, Ordiziako klasika prestatzen. Irailean egingo den

Etorkizuneko Tourra korritzeko gogoz sumatu dugu Joseba.

Baina martxan den Tourrera bueltatuz, azken aldiko ediziorik interesgarriena ikusten ari garela uste du Josebak: "beste batzuetan, Armstrong nagusi zen hasieratik baina honakoan azken unerarte ez dugu jakingo nor izango den garaile nagusia. Horrek lasterketaren ikuskizuna areagotu egin du".

Pozik dago Joseba, anaiak egin dituen erakustaldiekin eta taldeak eman duen mailarekin: "taldea oso ondo dago. Alpe D'Huez-eko garaipenak moral handia eman die. Haimar erlojuaren kontrako lehen etapen onen artean izan zen eta horrek indar asko eman zion".

Orain arte Haimarek egin duen lana goraiatu nahi du Josebak: "ikaragarria da egiten ari dena. Sorpresa txikia izan da baina orain arte ez du bere maila era-



ZUBELDIA TALDEKO KIDEAK EZ DIRA PIRINIOETAN IZAN BAINA TXIRIBOGA IZAN DA EUREN BILGUNA.

kusteko aukera izan, zirkustantziengatik ez da lehenen artean azaldu. Baina Tourrean maila gorenera iritsi da".

Tourra jokoan da. Baina baita San Estebango bi txirrindularien etorkizuna ere. Biei kontratua amaitzen baitzaie. Tourra amaitu arte ez dira hizketan hasiko. Baina Euskaltelek 2006 arte babesle jarraituko duenez, laranja kolorekoa dirudi bi anaien geroa.

## Esteban Arrillaga, judo taldeko entrenatzailea: "Euskadiko selekzioaren bizkarrezurra gara"

**A**skorentzat akaso oharkabean pasa ohi den ekitaldia izan ohi da. Baina judo zaleentzat egun berezia izan ohi da festetako txapelketa. Esteban Arrillaga entrenatzaileak ekitaldi honen xehetasunak eman dizkigu.

**Santixabel Judo Txapelketa nola joan zen? Etxekoen aurrean aritzeko aukera bakarrenetakoa izan ohi da, ezta?**

Egun hau ez da txapelketarako egokiena izaten. Ikasleak jada oporretan daude eta herri asko jaietan izan ohi dira. Dena den, klubaren artean Santixabel Txapelketa estimatuena izan ohi da. Honakoan, 11 izan ziren Oiardo kiroldegira hurbildu ziren taldeak. Guztira, 91 judoka aritu ziren eta Usurbilgo taldeak urrezko bi domina eskuratu zituen, zilarrezko hiru eta brontzezko bi.



PILOTALEKU PAREKO ETA ATZEKO HARMAILAK GAINEZKA IZAN ZIREN FINAL-PARTIDETAN.

**Nolakoak izan da denboraldia?**

Gipuzkoako Txapelketan 19 txapel eskuratu genituen. Bigarren postura iritsi ziren gure taldeko bederatzi kirolari. Eta hirugarren postura zortzi taldekide. Eskolarteko txapelketan, alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txapeldunak izan gara. Euskadiko Txapelketan urrezko hamalau domin eskuratu ditugu eta Espainiakoan

hiru. Aurten, Jugoslavian, Alemanian, Portugalen, Belgikan eta Tunezen aritu da Usurbilgo taldea eta denetan dominak eskuratu ditugu. Gaur egun, Usurbil Euskadiko selekzioaren bizkarrezurra da.

**Epe laburrera zer duzue buruan?**

Unibertsitate arteko txapelketa jokatu da Korean eta Oihana Blancok -48 kg mailan hartuko du parte. Lehiaketa horretan parte hartzen, Gipuzkoako lehen judoka izango da Oihana. 23 urteko azpiko Espainiako Txapelketan ere parte hartuko du Oihanak.

**Aurtengo ikasturtearenak egin du. Judoka gazteak noiz bueltatuko dira entrenamenduetara?**

Irailaren 10ean hasiko gara berriro. Ikasturte berrian izen-ematea mugatua izango da.





## KAIIXO LAGUNOK!

Jada hilabete egin duzue oporretan. Gu ere oporretara goaz baina irailaren 12an itzuliko gara gogo biziz.

**O**porretan zaudete eta badakigu ez duzuela aspertzeko denborarik izango. Dena den, uda honetan gustagarrak izango zaizkizuen bi joko bildu ditugu orri honetan.

Batetik, koloreztatze-ko irudi bat. Bestetik, irudi-joko bat.

Eskubitara duzuen irudia margotzeko etxe-

an dituzun margo guztiak erabili ditzakezu. Aurrera!

Azpiko jokoan, berriz, sei alde edo desberdintasun daude bi marrazki itxuraz berdin horien artean. Ea topatzen dituzun.

Ez ahaztu berriz bueltatuko garela irailean.

Bien bitartean, ondo pasa oporretan eta laster arte lagunok!



EA NOLA KOLOREZTATZEN DUZUN IRUDI HAU

## BILA ITZAZU SEI ALDEAK



H n k n      uz n n, s l z

**USU ILG H TZ KLINIK**

EE N N      E EZ-M SS NENNINGE  
NT NI      E N L UIZ E

al s p ster a



f t x k  
f l x k k l r i n  
l s f k z k ( i n ? + )  
r x z r z u ( s - i t z k )  
l n n k k ( + )  
r t k k k  
Enku - s ) k ( w r - , k r l k l u n )  
Zur - z k u z l - n

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

# Oporretan ez aspertzeko

**N**oaua!ko kideoi ere oporrak hartzeko ordua iritsi zaigu. Badakigu utziko dugun hutsunea handia dela, faltan sumatuko duzuela gure aldizkaria. Horregatik, hutsune hori eramangarriagoa izan dadin, "etxeke lanak" utzi dizkizuegu. Oporretako egun "luzeak"

arinago pasa itzazuen. Irailaren 12an itzuliko gara, ordurako beteko al dituzue hitz-jokoaren hutsuneak? Hizki-zopa argitzeko moduan izango al zarete? Edo, aukeran, aldameneko orrialdeko denborapasa nahiago? Ondo pasa oporretan eta zorte on!

*Irudi bakoitzaren lehen letra dagokion laukian idatzi. Hiru fruituren izenak azalduko zaizkizu.*

Below the illustrations are three rows of empty boxes for writing the first letter of each word.

*Barruan daude izenak. Bilatu!*

In the center of the grid is a word search puzzle with the following text:

```

T E R I D I H K O N
R A N O M A A L M E
O N I Z R I O A A G
N A T P D O Z R U I
P S A N L F R I E T
E S K U S O I N U A
T L B E B X U E E R
A K A N U A G T H R
I D A B Z S S E I A
A D A P A O N A I P
B I O L I N A A R M
A L X A L U R I X T
    
```

aldameneko irudi hitzak: kokoa, anana, muxika

**ERRAZ IN**  
**Igeltzer tza**  
**r rra**

K I N u s . I  
T I F 3 3 / 2 7 r 3 S I 2 5  
S n t u ■ M 2 2 5 5

**txirriStra**  
**TABERNA**

- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 **Tel: 943 36 04 66**

*H ur*  
*ntz, k*

**Pauma**

K I N u s . I 1 1 9 3 3 3



# NOAUA!ko LEHIAKETA!!!

Noauako lehiaketak ere oporrak hartuko ditu haina irailerako lana uzten dizuegu.  
Oraingo honetan sari eder hau irabazi nahi baduzue hauxe eskatzen dizuegu:

## Zuen oporretako postal zoragarri batean agurtxo bero bat bidaltzea

### SARIA:

Gerbiñe Ubedaren  
"NEGU GORRIAK, IDEIA ZABALDU TOUR 95" liburua  
  
"ETXAHUN 1907-1979" musika cd-a  
  
NOAUAko kamiseta zoragarria.



Jasotzen ditugun guztien artean zozketa egingo dugu.

### OHARRA:

Postalak Noaua!ko egoitzara bideli behar dituzue:  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea,  
20170 Usurbil (Gipuzkoa).  
Postalak bidaltzeko azken eguna irailak 7

Auzreko galderen erantzunak:

- Zer bar buruhaundi ibili dira Santixabeteran maskurickin ju eta jo?  
LAU: Akerra, Deabra, Baserritarra eta Tximinoa.
- Maskota erre ondoren zer irakurri ahal izan genuen elizaren orrutan?  
BERRIA

Irabazlea IZARO ARANZABE OTAEGI izan da.

Oporretarako hiru liburu zoragarri hauek irabazi dituzu. ZORTONAK!  
Jaso ezazu saria Noauako egoitzan.



## Denborapasak !

● Gure udalerria

Epaiketa		Aldartea		Errep., distira		Meategiko langileak		Nor atzikia	
Igorlea		Zilarra		100 m2		52			
Bidaliak									
Batrazio mota									
●	Idi, hitz elkarketan	Musika nota		Ald., titanioa				Donostiako mendia	
Sendagileak	Bukatu	Pl., musika tresna		Pl., kaltzio oxidoa		Zaren hori			
						Asturu, patu			
Ume jaiogabea				Larru					
EH-ko mendialdea				Interjekzioa					
				Jausi					
				Edari alkoholdun					
Lehen bikoitia		Odol eroalea							
Niri, du		Arabako alderdia							
	Ukapen			Gipuzkoako herria				Bokala	
	1000			Iodoa					
Hitz jokoen egilea				Naizen honek		Modu atzikia			

### Eusko Tren-en udako tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17	15.33	15.50	15.38	15.54	16.09
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17	16.33	16.50	16.38	16.54	17.09
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17	17.33	17.50	17.38	17.54	18.09
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17	18.33	18.50	18.38	18.54	19.09
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17	19.33	19.50	19.38	19.54	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17	20.33	20.50	20.38	20.54	21.09
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

\* Astegunetan bakarrik

\* Astegunetan bakarrik

### Eusko Tren-en udako autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00:00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02:00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04:00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06:00		06.25	06.45				

\*\*Aiarraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

\*Aiatic dator      Asteburutan  
Soilik      Larunbat  
larunbata gauze      lanegunetan

### Goardiako farmaziak

**Uztailak 25, ostirala**  
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte  
G: Oa, Kontseju zaharra, 11, Usurbil

**Uztailak 26, larunbata**  
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte / Iturralde, bordaberri 1, Usurbil  
G: Tanco, Idiazabal 39, Urnieta

**Uztailak 27, igandea**  
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte  
G: Tanco, Idiazabal 39, Urnieta

**Uztailak 28, astelehena**  
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Tanco, Idiazabal 39, Urnieta

**Uztailak 29, asteartea**  
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte  
G: Gomez, Nagusia 14, Hernani

**Uztailak 30, asteazkena**  
E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte  
G: Bulnes, Grupo Etxeberria 1, Hernani

**Uztailak 31, osteguna**  
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Elizondo, zumea 20, Andoain

**Abuztuak 1, ostirala**  
E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte  
G: Correa, Perkaiztegi 8, Hernani

**Abuztuak 2, larunbata**  
E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte / Oa, Kontseju zaharra, 11, Usurbil

**Abuztuak 3, igandea**  
E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte  
G: Aizpuru, Larxunbe berri 11, Hernani

**Abuztuak 4, astelehena**  
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Etxebeste, Elkano 2, Hernani

**Abuztuak 5, asteartea**  
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte

G: Bilbao, Urbieta 7, Hernani

**Abuztuak 6, asteazkena**  
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Gomez, Nagusia 14, Hernani

**Abuztuak 7, osteguna**  
E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte  
G: Ansa, Ondarreta 8, Andoain

**Abuztuak 8, ostirala**  
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte  
G: Diaz, Nagusia 19, Andoain

**Abuztuak 9, larunbata**  
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte / Iturralde, bordaberri 1, Usurbil  
G: Correa, Perkaiztegi 8, Hernani

**Abuztuak 10, igandea**  
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Correa, Perkaiztegi 8, Hernani

**Abuztuak 11, astelehena**  
E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte  
G: Diaz, Nagusia 19, Andoain

**Abuztuak 12, asteartea**  
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Elizondo, Zumea 20, Andoain

**Abuztuak 13, asteazkena**  
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte  
G: Gorospe, R.Arregi 12, Andoain

**Abuztuak 14, osteguna**  
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Diaz, Nagusia 19, Andoain

**Abuztuak 15, ostirala**  
E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte

E: Egumez. G: Gauze. E/G: Egumez eta gauze.

Urte osoko egutegia  
noaua.com helbidean

### Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**  
**Zubieta-Donostia**  
7:55\*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35\*(T)/ 19:15(T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45\*/18:45

**LARUNBATETAN**  
**Zubieta-Donostia**  
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**  
**Zubieta-Donostia**  
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)

\* Eskola egunetan  
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

### Datorren Noaua!

Iraila						
As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Hurrengo alca

### Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa ..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) ..... 36 45 00
- Agerialde ikastetxea ..... 36 38 95
- Oiardo kiroldegia ..... 37 24 98
- Zumarte ..... 37 15 94
- Etumeta ..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. .... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren ..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76



## Oharrak !

### ETXEBIZITZA

- Etxebizitza salgai, eraberritua. Bista onak, kale-fakzioiduna. 3 logela, sukaldea, komona. Garajea ere, aukeran. 607 404 582 / 639 761 260.
- Alokairuan dagoen etxe baten bila gabil-tza. 670 532 443.
- Etxe bat edo lursaila etxe bat eraikitzeko erosi nahi dut Usurbilen. Tlf: 943 314791.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.
- Konpartitutako pisu baten bila nabil alokatzeko. Deitu 5:30etatik aurrera. 637 193 100.
- Pisu bat saltzen dut. Munalurra 4, 4 A. Telefonoa: 943 37 10 44.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Txaramunton 30 m2 ko garaje itxia prezio onean, 24.821 eurotan. Tel: 666 646 847.
- Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainan 200 eta 300 m2-ko bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77.
- Eguzkitzan 30 metro karratuko garaje itxia salgai. 676 20 27 10 (Maria Angeles). Deitu eguerditan edo gauetz, bestela utzi mezua.
- Garaje itxiak saltzen ditut, Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro. 15 m, 7.800 euro. 26 m, 9.000 euro. Telefonoa: 656 759 583.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Lan egin nahi nuke udan, arratsaldeetan. Umeak edota jende heldua zaintzeko prest nago. Tf: 657 714 355.
- Eraikuntzan aritzeko lan bila nabil. Interesaturik bazaude deitu 619 844 556.
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko.

619 844 556 egun osoz.

- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauetz. 943 371447 (Belen).
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauetz edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan, Deitu hona: 652 757 495.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 15:00etatik 17:00etara. Astelehen, asteazken eta ostiraletan. 943 36 57 37.

#### Lan-eskaintzak

- Sukaldari, kamarera, tabernari eta garbitzailea behar dugu, jatetxe-taberna berrirako. Deitu 15:00-18:00. Tf: 687 078 356.
- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira. Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217 / 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurru tabernan lan egiteko. Deitu 943 36 00 80.

#### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Hemezortzi hilabete dituen haur ekuatoriar batentzat kotxe-sila bat behar dut. Deitu Mari Karmeni 943 36 12 04 telefono zenbakira. Eskerrik asko aurrez.
- Ibilgailuarekin eramateko egokituta dagoen kanping-denda bat saltzen dut. Kanpingaren osagarri extrak barne. Deitu honako telefonora: 635 729 637.
- Erreperiderako bizikleta salmentan daukat: Look koadroa, Carbono fibrazkoa, Shimano Dura -Ace. Gustukoa baduzu akordia batera iritsi gaitezke.
- Pelukeria bateko estetika kabina bat alokatzen da. 943 36 19 71.
- Etxerako hozkailu txikia salgai, 20 litro ingurukoa. Berria, merkea. 943 36 55 31.
- Trial bizikleta bat dago salgai. Monty X-DRYA. Interesatuak deitu 943 37 26 46.

## ! Txerrimunik ordainetan



### Zorionak Aitziber!

Abuztuaren 22an 6 urte egingo dituzu. Zorionik beroenak zure urtebetetzean eta egun ona igaro, ama eta amonen partez!



### Zorionak panpoxak!

Nagorek uztailearen 25ean urte bat beteko du eta Eukenek, berriz, abuztuaren 12an 6 urte. Ondo pasa eta muxu asko etxekoan partez!



### Zorionak Ioritz eta Aiert!

Etxeko bihurriek urteak egin berri dituzte, batek uztailearen 11n eta besteak uztailearen 12an. Muxu handi bat Arratzaingo familiaren partez!

## JAIOTZAK

- **Aitana Davila Zaldua** 2003-VI-7. Zubieta.
- **Enara Lertxundi Hernani** 2003-VII-3. Kalezar.
- **Ametz Aburruza Seguro** 2003-VII-8. Usurbil.
- **Markel Azkue Manterola** 2003-VII-8. Usurbil.

## HILDAKOAK

- **Miguel Zaldua Alkorta** 2003-VII-8. Usurbil.

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475  
649435476  
943 363370- 361439

TXU UT



r t

t mus k ts n

S n Est uk l , l  
T I 3 3

JU NTX

ur n

k l n us l Usur l  
S/

### Agenda !

#### Uztailak 25 Ostirala SANTIO EGUNA

09:00etan esnadeia. 11:00etan meza nagusia. 11:30etan hamaiketakoa. Ondoren soka dantza. 18:00etan Zubietako VI. Trikitixa txapelketa. 22:30etan Bertsolariak: Xebastian Lizaso, Andoni Egaña, J. M. Irazu, Igor Elortza. Gai-jartzailea: Xabier Sukia. Ondoren, erromeria.

#### Uztailak 26 larunbata

06:00etan, oilasko biltzaileen irteera. 14:00etan, oilasko jokoa. 16:00etan, pala txapelketa. 19:00etan, futbito partida. 00:00etan kontzertua: 4 itzal/ Ken 7. Atsedendaldian: preso enomenaldia.

#### Uztailak 27 Igandea

09:30etan Meza. 10:00etan Artisauak eta sagardo probaketaren hasiera. 10:30etan Rai Karreraren Hasiera. 15:00etan Rai Karreraren amaiera Plazan. 17:00etan txerri harrapatzea. 18:00etan sardina jana. Ondoren Irma eta Amets trikitilariak.

#### Uztailak 28 Astelehena UMEEN EGUNA

10:00etan jolasen hasiera. 14:00etan bazkaria. 16:00etan Jolasen jarraipena, ondoren buruhandiak. 18:00etan Gorritiren Showa, segidan txokolatada. 22:30etan herri antzerkia.

#### Uztailak 29 Asteartea JUBILATUEN EGUNA

13:00etan Meza. 14:00etan jubilatuen bazkaria. 18:00etan herriko trikitilarien emanaldia.

#### Uztailak 30 Asteazkena GAU PASA EGUNA

23:30etan diskofesta Joseina Etxeberria. Ondoren Alaitz eta Maider.

#### Uztailak 31 Osteguna SAN INAZIO EGUNA

06:00etan Txokolatada. 07:00etan Soka-muturra. 09:00etan esnadeia. 10:30etan Meza. 11:00etan Errebote partidua. (Lokaleko finala). 14:00etan Zikiro jana. 18:00etan herri kirolak. Ondoren buruhandiak. 20:00etan erromeria. 00:00etan jaien amaiera.

### Musikaren txokoa !



## Gatibu, uda honetako talde estimatuenetakoa

**G**ernika

Galdeko jendea batu da proiektu honetan eta 2002ko udan Gatibu izena hartzea



erabaki zuten. Alexen "itzulera"ren berri izan ondoren, jakin-mina handia zen. Zertan ote dabil Exkixu taldeko kantari ohia? Kantuen nondik norako txukuna entzun eta ikusita, hortik zerbait dotore eta eraginkorra aterako zela oso argi zegoen. Haimar Arejita gitarra klasikoan lizentziaturik dago. Talde desberdi-

netan jo izan du (Frik, Noiz? eta Einbigu) eta Jon Enbeita bertsolariaren "Paperetik plazara" emanaldietan parte hartu zuen. Mikel Caballero baxuaz eta samplerraz arduratu da; gitarra elektriko irakaslea, "Cartoon Project", eta Noiz? taldeetan egon da. Gaizka Salazar Gernika inguruetakoa ez den bakarra, Bilbokoa da; perkusio klasikoa ikasten dabil, eta "Einbigu", "Frik" eta "The rabid harpy" taldeetan jo izan du orain arte.

Gatibu rock esparruetan mugitzen da. Sentipen desberdinen koloreak hartu ditu.

### Egin kontu !

## Udan, tren ordutegi berria

**E**usko Trenek ordutegia aldatu ehoi du uda atarian. Honakoan, ez da aldaketa handirik eman. Ez da ordu aldaketa nabarmenik eman, aldizkotasunekoak dira berrikuntza nagusiak. Ikasturtean zehar, soilik astean zehar ibili diren tren gehienak, udan martxan izango dira bai astean

zehar eta baita aste-buruetan ere. Autobusen ordutegia, aldiz, berdin-berdin mantendu da.



Gure web gunean, noaua.com helbidean, "udako autobus eta tren ordutegia" osoa topatuko duzue.

**ALTXERRI**  
Bar-Restaurante  
Berezitasunak: Txaketa eta birapina.  
E\*Ukoan Tlf: 943 36 17 82 AM - ORD (7:00-1:00)

**Urtinea**  
L r k - L r l n r k  
L r s r t k - K r k  
San Esteban Tlf.: 943 36 22 55

Zure publizitatea hemen jarri nahi baduzu, deitu 943 36 03 21 telefonora


**joseba. andoni**  
m a r g o a k  
Tlf: 605 70 25 17 / 656 75 30 63  
Arrantzale kalea, 8 - 2.ezk  
Kalezar

**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
Zerbitzu Ofiziala  
Zumartegi Poligonoa  
Aitzezarra kalea, 1  
20170 USURBIL  
Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92




# Herritar guztiek ezagutzen dute Noaua! aldizkaria, eta 10etik 8k irakurtzen dute

## Noaua! herri aldizkaria ezagutzen al duzu?



## Noaua! herri aldizkaria irakurtzen al duzu?



Aldizkariak herritarren artean notoridade handia lortu du eta ia guztiek ezagutzen dute. Doaneko zabalpenak horretan asko laguntzen du. Ezagutzeaz gainera, asko edo gutxi, zerbait irakurtzen duten herritarren ehunekoa ikaragarri altua da.

## Informazio lokalaren indarra



JUANJO ALLUR

Herritarrek egindakoa edota herrian gertatutakoa notizia bilakatzen du Noaua! herri aldizkariak eta gertutasun horrek badu oraindik ere indar bat zorionez. Gertuko kontuak, gertukoak

direlako edo gertuko batek kontatzen dituelako interesgarriak dira eta egungo ofizio eta afizioek urrutira begira jartzen gaituzte askotan.

Informazio lokaleko hedabide baten bizitasunak, herritarren biziarekin eta bizimoduarekin hedabide horrek lortzen duen loturarekin zerikusi handia du. Idatzizko komunikaziorako bide bat zabaldu du Noaua!k eta komunikazio hori intentsitate handiagokoa izatea da erronka orain. Usurbilgo herri bizitza indarberritzeko potentzial bat badu eta horretarako herritar guztiak aldizkariaren bitartez "protagonista" sentitzeko bidea eginez jarraitu beharko da: auzo desberdinek, edadeko, heldu eta gazteek, erdal eta euskal hiztunek,...

Datu eta portzentajeek adierazten dutenez Noaua!ri egin diogu tokia gure etxeetan eta hori emaitza bikaina da. Egia da ate joka bera etorri zaigula eta merkatura diruz ordaintzera joan behar izan bagenu emaitzak bestelakoak izango zirela.


Entretanimendurako, ezagupenerako nahiz informaziorako interesgarria den guztiak izan behar du tokia aldizkarian. Ikuspegi objektibo eta zientifiko batetik egindako lanaren emaitzak aurkezteko bezala erabili behar da joera eta ideologia politikoen sinismenetatik egiten diren balorazioak plazaratzeko ere. Guztientzako tokia egitea da lehendabiziko lana eta bakoitzari dagokion tokia ongi erabiltzea hurrengoa. Oreka bati eusteko ahalegina zaila baina ezinbestean egin beharrekoa izango da. Lortuko al dugu erdaldunak euskarara erakartzea eta euskaldunok euskara modu koherentean maitatzea?

## 16 urtetik gorako usurbildarrak, Noaua! herri aldizkaria irakurtzen duten ala ez duten, sexuari, adinari eta euskararen ezagupenari jarraiki (%)

- Aldizkaria irakurtzen dutenak zertxobait gehiago dira emakumezkoak gizonetzkoak baino.


- Adinari jarraiki, euskarazko alfabetatze maila eta Noaua!ren irakurketaren artean badagoela lotura bat ikus daiteke. 16-44 urte arteko herritarrek, 45 urtetik gorakoek baino gehiago irakurtzen dute aldizkaria. Aipagarria da ahoz erdararako joera handia dagoen 25-44 urte arteko biztanleria multzoan, 10etik 9 direla Noaua! asko edo gutxi irakurtzen dutenak. Euskararen sensibilizaziorako adin tarte horretako herritarrengana iritsi daitekeen medio bat dela erakusten du horrek.

- Hizkuntzaren ezagupenaren arabera,



euskaldunen artean irakurtzen da gehien baina erdaldunen eta batez ere ia euskaldunen artera iristen den aldizkaria da. Horrek adierazten du informazio lokalak baduela indar eta interes bat herritar guztien aldetik eta hizkuntzaren normalizaziorako ere, hizkuntza tipologia desberdineko herritarrengana iritsi eta haiek euskararen mundura erakartzeko Usurbilek egun duen baliabiderik eraginkorrenetako bat izan daitekeela Noaua! herri aldizkaria.

## Bataz beste zenbat denbora eskaintzen diozu Noaua! irakurtzeari?



Bi multzo handitan banatzen dira herritar gehienak, herritarren heren bat pasatxok ordu erdi bat baino gutxiago eskaintzen baitio aldizkaria irakurtzeari, eta ia beste hainbestek 30-60 minutu artean. 10etik 1ek ordu bete baino gehiago eskaintzen dio.

Bataz beste, beraz, herritar gehienek (%71) aldizkariaren ale bakoitzari eskaintzeko denbora ordu erdikoa da.



# SALTXIPI



## JATETXEA



► Ondo egokitutako jangelak ezkontzak eta jaunartzeak ospatzeko

► Kartako eskaintza: bazkariak, afariak,...

*Sanesteban  
jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu  
guztiori!*



Txokoalde, 2/g  
USURBIL

Tel: 943 36 11 27 / 943 37 10 94  
Faxa: 943 36 55 54